
Errefuxiatuek pairatzen duten krisi humanitarioa: Eusko Jaurlaritzaren 2017ko jarduera-memoria eta 2018rako helburuak

2018ko otsailaren 5a

Euskadi, auzolana, bien común

I. 2017ko memoria laburtua

Errefuxiatuen krisi humanarioa
dela-eta Eusko Jaurlaritzak 2017an
burutu dituen hamar ekintza nagusiak

II. 2017ko jarduera-memoria

Errefuxiatuek pairatzen duten krisi
humanarioa: Eusko Jaurlaritzak
2017an egindako jardueren memoria

III. 2018rako helburuak

Eusko Jaurlaritzaren 2018rako
helburuak, errefuxiatuei buruzko
politika publikoen kudeaketan

I.

2017ko memoria laburtua

Errefuxiatuen krisi humanarioa
dela-eta Eusko Jaurlaritzak
2017an burutu dituen
hamar ekintza nagusiak

1. Bertatik bertara ezagutu dugu zer diren korridore humanitarioak

Urtarrilaren 12 eta 13an, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat, Urkullu Lehendakaria buru zela, Erromara joan zen, bertatik bertara ezagutzeko zer diren Korridore humanitarioak. Sant´Egido komunitateak ditu antolatuturik, Italiako Gobernuaren onespenez.

2. Espainiako Gobernuari proposamen bikoitza aurkeztu

Urtarrilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak bi ekimen aurkeztu zizkion Espainiako Gobernuari: Sistema indargarri osagarri bat proposatu zion, asilo-eskatzaileak hobeto hartzeko; eta, proba modura, korridore humanitario bat martxan jartzeko ere proposatu zion. Apirilaren 11n, Immigrazio eta Emigraziorako Idazkaritza Nagusiak baietz esan zuen, sinatuko zuela sistema indargarri osagarri bat martxan jartzeko hitzarmena (Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioan dago idazkaritza hori).

3. Lanerako mahai bat sortzea administrazioen eta gizarte-erakundeen artean

Urtarrilaren 27an, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak mahai bat osatzeko deia egin zuen administrazioen eta gizarte-erakundeen artean lan egiteko. Han izango ziren ordezkaturik Eusko Jaurlaritzako sailak, hiru foru-aldundiak, hiru hiriburuak, EUEDEL eta errefuxiatuak hartzeko eta gizarteratzeko ardura duten erakundeak. Mahai hori bost bider batu da, bi hilez behin. Mahai-kideek elkarren artean banatuko dituzte, ezer ezkutatu gabe, datuak, informazioak, zailtasunak eta proposamenak, eta estrategia bat zedarrituko dute, eragile guztien artean batera eta koordinaturik erantzuteko.

4. ACNURi laguntzea negurako babesgaiak erosten errefuxiatuentzat

ACNURek eta Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak egin zigun deiari erantzun nahian, otsailaren 14an, Gobernu Kontseiluak ACNURi 150.000 euroko diru-laguntza ematea onartu zuen, “Europarako errefuxiatu eta migrantei erantzuna emateko eskualde-plana 2017” aurrera eramaten laguntzearen. Laguntza hura negurako 2.000 kit erosteko erabili zen, beste hainbeste familiarentzat: arropa, oinetakoak, mantak eta elikagaiak, negu-garaiko beharrik premiazkoenak betetzeko.

5. “Konpromisoa eskatzen eta eskaintzen dugu” erakunde arteko adierazpena aurkeztea

Apirilaren 3an, Lehendakariak erakunde arteko adierazpen bat egin zuen publiko errefuxiatuek bizi duten krisi humanitario larria dela-eta: “Konpromisoa eskatzen eta eskaintzen dugu”. Inoiz ez zen horrelako adostasun zabalik lortu; Legebiltzarreko talde guztiek eta euskal erakunde eta gizarte zibileko erakunde nagusi guztiek parte hartu baitzuten adierazpena idazten.

6. Auzolan Proposamena aurkeztea

Ekainaren 20an, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Auzolan Proposamena aurkeztu zuen. Kontua urtariletik zetorren, asilo-eskatzailleak hobeto hartu ahal izateko sistema indargarri osagarri baterako proposamena aurkeztu zenetik; orain, hura zehaztu eta garatzearekin batera, proposamena bideratzeko, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioarekin hitzarmen bat egiteko oinarria jarri nahi baikenuen. Euskadira datozen errefuxiatuak hobeto hartzea da helburua. Hobeto diogu, kopuruz eta kualitatiboki. Hitzarmen horretan aurreikusita zegoenaren ondorioz, errefuxiatuak hartzeko eta gizarteratzeko proba bat jarri da martxan Amurrión, Galdakaon, Getxon, Laudion, Portugaleten, Tolosan eta Zarautzen, CEAR Euskadirekin, Gurutze Gorriarekin eta MPDLrekin koordinaturik.

7. Eusko Jaurlaritzaren esparru-agiria aurkeztea

Uztailaren 5ean, Eusko Jaurlaritzak esparru-agiri bat aurkeztu zuen, denon artean erabakitzeko nondik nora erantzun, gizartean, politikan, erakundeen artean eta sailen artean, errefuxiatuek Europako mugetan pairatzen duten krisi humanitarioari". Agiri hark krisiari erantzuna emateko estrategia oso bat dakar. Oinarrien marko bat eta legegaldian zehar Jarduteko Plan bat eskaintzen du, betiere bost ardatz hartutik lanerako ildo modura.

8. Euskadiko Itsas Salbamendu Humanitarioa

Uztailaren 11n, Gobernu Kontseiluak 150.000 euroko diru-laguntza onartu zuen Itsas Salbamendu Humanitarioarentzat. Laguntza-deia hark zuen egina, Aita Mari Zubirira #Maydayterraneo proiektua aurrera eramateko. Laguntza horri esker, Itsas Salbamendu Humanitarioak sorospen-ontzi bat eduki ahal izan du udako hilabeteetan, nazioartearen babes bila Libiatik Mediterraneo itsasora jauzi egiten duten pertsonak sorosteko.

9. Bulgariako UNICEFi laguntza ematea

Urriaren 17an, Gobernu Kontseiluak 200.000 euroko laguntza onartu zuen Bulgariako UNICEFentzat. Bulgarian dabilzan edo nazioarteko laguntza eskatzen duten umeen muturreko baldintzei erantzuna emateko izango da. Diru-laguntza horri esker, 650 umeri laguntzeko modua egongo da, denak ere oso egoera zaugarrian, etxetik babes bila alde egin beharra izan duten familietako kideak izanik

10. Save the Children-entzako laguntza

Abenduaren 5ean, Gobernu Kontseiluak 200.000 euroko diru-laguntza onartu zuen Save the Children erakundearentzat, aurrerantzean ere jarrai dezaten laguntasuna ematen Greziara nazioartearen babes bila bakarrik iristen diren baina hango agintariek artatzen ez dituzten adingabeei. Laguntza horri esker, babesgabe gorrian eta erabateko noraezean dauden adingabeei lagundu ahal izango zaie.

II.

2017ko jarduera-memoria

Errefuxiatuek pairatzen duten
krisi humanitarioa: Eusko Jaurlaritzak
2017an egindako jardueren memoria

1. Badugu nondik abiatu

Ez da kontu berria gure herrira errefuxiatuak heltzea. Hori horrela izanik ere, funtsean aldatu dira zenbait kontu: etorreren intentsitatea, aukeratutako ibilbideak eta gizarteak eta erakundeek egoera horren aurrean ematen duten erantzuna.

2015ean, krisi humanitario larria hasi zen Mediterraneoan, ehunka milako pertsona gerratik ihesi erbesteratu zirenean. Egoera hartan, Espainiako Gobernuak 17.228 pertsona hartzeko konpromisoa bereganatu zuen, batzuk birkokatuz (Greziatik eta Italiatik etorriko ziren asilo eskatzaileak) eta beste batzuk birfinkatuz (EBtik kanpo, Turkiatik eta Libanotik, batez ere, etorriko ziren asilo-eskatzaileak). Orduan, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen prest zegoela 1.000 pertsona hartzeko, gutxienez, epe laburrean.

Horretarako, koordinatzeko hiru maila ezarri ziren, Euskadik eman beharreko erantzuna egokia izan zedin bermatzeko:

- *Sailen arteko maila*: pertsona horiek hartzean eskua hartu ahal zuten Eusko Jaurlaritzako sailak biltzen zituena.
- *Erakundeen arteko maila*: hiru administrazio-mailak biltzen zituena (Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta udalak).
- *Gizarte-maila*: administrazio publikoek eta lankidetzak eta immigrazio-arloan lan egiten duten erakunde sozialak biltzen zituena.

Dena den, ahalegin handiak eginda ere, 2017ko amaieran, Espainiak 1.932 pertsona hartu zituen, birkokatzeen eta birlekuratzeen bidez. Euskadin, guztira, 418 plaza sortu ziren, non 1.297 lagun baino gehiago hartu ziren; haietatik 167 baino ez ziren birkokatzeetatik edo birlekuratzeetatik etortzen. Munduko beste toki batzuetatik Espainiako estatura munduko beren kabuz iritsi ziren eta babesak eskatu zuten pertsonak bete zituzten gainerako plazak. Aldi berean, uste da 2014tik 14.000 pertsonatik gora hil direla Mediterraneoan.

Europar Batasuna		Espainiako Estatura		Euskadi	
Birkokatze konpromisoa: 98.255	Egina (2017ko urriko datuekin):: 31.503	Birkokatze konpromisoa: 9.323	Egina (2017ko urriko datuekin):: 1.301	2017ko amaierara arte sortutako plazak: 418	2017ko amaierara arte jasotako pertsonak: 1.297
Birfinkatze konpromisoa 22.504	Egina (2017ko azaroko datuekin): 18.366	Birfinkatze konpromisoa 1.449	Egina (2017ko azaroko datuekin): 631		(Birkokatze eta birfinkatze datuak: 167)

2. Bultzada berri bat

Egoeraren larritasunak, haren lehentasunak eta Europak emandako erantzunari buruzko datuen eskasia adierazgarriak puntu batean egiten dute bat: erantzun efizienteagoa eman behar da, alde guztien arteko lankidetzak ezinbestekoak.

Espainiako estatura iristen diren eta nazioarteko babesak eskatzen duten pertsonak birkokatze eta horiei lehenengo harrera egiteko orduan, Eusko Jaurlaritzak ez dauka gaitasunik zuzenean esku hartzeko, ezta Estatuarekin hartutako konpromisoen kudeaketan ere. Nazioarteko babesaren bila dabilzan pertsonak Estatuaren lurraldean egon arte eta autonomia erkidego batera edo bestera eramaten dituzten arte, Europar Batasunaren eta estatuaren esku daude erabakiak eta kudeaketa; gure kasuan, Espainiako Gobernuaren esku. Harreran hartutako pertsonak gure lurraldean daudenean hasten dira Euskadiko erakundeak eta entitateak jarduteko tartea edukitzen.

Guztia ez dago gure esku; hala ere, gure esku dagoen guztian, edota Euskadiko erakundeen eta gizarte zibilaren elkarrekin gaitasunen, eskumenen eta nahiaren mende egon daitekeen guztian, egoera horri erantzun osoa eta eraginkorra emateko konpromiso partekatua dago.

Horretarako, 2017an zehar tinko lan egin dugu bi ardatz nagusien inguruan:

- Lanerako mahai bat sortzea administrazioen eta gizarte-erakundeen artean.
- Etengabeko solaskidetza eta proposamen-harremana izatea Espainiako gobernuarekin.

2.1. Lanerako mahaiak, Administrazioen eta gizarte-erakundeen artekoa

Giza Eskubideen, Bizikidetzak eta Lankidetzako Idazkaritza Nagusiak dauka mahaiaren lidergoa, zein nean hauek guztiak baitira parte-hartzaileak: Eusko Jaurlaritzako zenbait sail (Enplegu eta Gai Sozialetakoa eta Alokabide), hiru foru-aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburu-udalak, EUEDEL eta errefuxiatuak hartzen eta integratzen lan egiten duten erakundeak (ACCEM, CEAR-Euskadi, Gurutze Gorria, MPDL, Cáritas eta Ellacuria fundazioa).

Mahaiaren helburuak: ahalik eta argien partekatzea informazioak, zailtasunak eta proposamenak; parte hartzen duten eragile guztien arteko erantzun partekatua eta koordinatuen estrategia bat taxutzea; eta gure jarduketaren esparruan dauden krisi humanitarioari eman beharreko erantzuna hobetzeko helburu zehatzak identifikatzea.

Bi hilabeterik behin biltzea erabaki da. Hala, aurren, 6 aldiz egin dira bilerak: Urtarrilaren 27an, martxoaren 2an, maiatzaren 5ean, uztailaren 5ean, irailaren 27an eta azaroaren 29an.

2.2. Etengabeko solaskidetza eta proposamen-harremana Espainiako gobernuarekin

Eusko Jaurlaritzak komunikazio-eta koordinazio-lerroari eutsi dio Espainiako Gobernuko Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiarekin.

Koordinazio hori sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak elkarrekin lan egiteko bi proposamen aurkeztu zituen:

- Euskadin esperientzia-pilotu bat garatzea: Errefortzuko Sistema Osagarria.
- Euskadin korridore humanitario bat zabaltzea, hura ere esperientzia pilotu gisa garatzeko.

Alde bien arteko zenbait bilera egin ostean, apirilaren 11n, Espainiako Gobernuko Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiak jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzari Errefortzuko Sistema Osagarria egiteko proposamenaren aukerak esploratzeko asmoa zuela, eta hura ondoren eraldatu eta Auzolana proposamenean gauzatu zen.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak bi saio informatiboetan parte hartu du, autonomia-erkidegoekin koordinatzeko, urtarilean eta uztailean, eta ekarpenak egin dizkio *“Nazioarteko babesak eskatzen eta jasotzen dutenei zuzendutako jarduerak koordinatzeko Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren, autonomia-erkidegoen eta tokiko entitateen arteko protokoloa”* dokumentuari.

3. Auzolana proposamena

Auzolana proposamenak bi funtsezko helburu ditu: lehenengo eta behin, kuantitatiboki eta kualitatiboki handitzea Euskadik harrerarako daukan ahalmena, birkokatzearen (Greziatik eta Italiatik datozen asilo-eskatzailak) eta birfinkatzearen (Europar Batasunaz kanpotik datozen asilo-eskatzailak, nagusiki Turkiatik eta Libanotik heldutakoak) arloak direla-eta Espainiak Europar Batasunarekin hartuta dituen konpromisoak betetzen laguntzeko.

Bigarrenik, Auzolanaren helburua da erakunde eta instituzio parte-hartzaileen jardueren koordinazioa eta lankidetzak bermatzea, nazioarteko babesaren eskatzailak eta onuradunak hartzeko eta integratzeko eza-rritako prozedurak garatzerakoan eta gauzatzerakoan, betiere pertsona horiek gure gizartean integratzeko prozesua bultzatze aldera.

Esperientzia pilotu honen klabe nagusitariko bat da ohiko harrera-sistema indartzea, hasieratik aintzat hartuta autonomia-erkidegoak, foru-aldundiak eta udalak. Zentzu horretan, hiru irizpide zuzentzaile ditu:

- Behetik gora eraikitako erantzun bat antolatzea, hasieratik bermatzeko oinarriko erakunde partaidetza.

·Aintzat hartzea harreran hartutako pertsonak hartzaile pasiboak izateaz gain, aktore aktiboak ere badirela prozesu osoan zehar.

·Euskal erakundeen erantzukizun-arloaren ikuspuntutik, oraingo harrera-sistema indartzea, batez ere integrazioaren aldetik.

Irizpide horietan oinarrituta, informazio-, komunikazio-, errefortzu- eta segimendu-mekanismoak sartzen dira, partaide diren aktore guztiak sartuz, nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen harrera eta integrazioa hobetzeko helburuaz.

2018ko urtarrilaren 15ean sinatu da Auzolana hitzarmena: *Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Migrazioen Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen harrera eta integrazioarako ezarritako prozeduretan jarduketan koordinazioa bermatzekoa.*

Dena den, aldean arteko akordioaren ondorioz, 2017ko uztailearen amaieraz geroztik hasi zen lan egiten eremu horren barruan. Horrela, bada, koordinazio-bilerak egin dira EUDELekin eta Auzolana proposameneren partaide diren 7 udalekin, bai eta Euskadin harreraz arduratzen diren erakundeekin ere.

Eusko Jaurlaritza arduratuko da esperientzia honen garapenaren sistematizazioaz, prozesua dokumentatzeko eta Auzolana proposamenean proposatutako errefortzu-guneen erabilgarritasuna baloratzeko, eta etorkizuneko esperientzien hobekuntza-arloak identifikatzeko. Lan hori 2018an eta 2019an egingo da.

Hurrengo taulan jasotzen dira Auzolana proposamena ezartzeari buruzko datu nagusiak, 2018ko urtarrilaren 31ko datuz:

UDALERRIA	ERAKUNDEA	PLAZAK	ARTATUTAKO PERTSONAK	PERTSONAK, GAUR EGUN	ETXEBIZITZAK
AMURRIO	GURUTZE GORRIA	8	7	7	2 etxebizitza
GALDAKAO	CEAR	10	0	0	2 etxebizitza
GETXO	CEAR	9	14	4	2 etxebizitza
LAUDIO	GURUTZE GORRIA	12	27	10	2 etxebizitza
PORTUGALETE	MPDL	12	6	6	2 etxebizitza
TOLOSA	CEAR	10	0	0	2 etxebizitza
ZARAUTZ	CEAR	8	8	8	1 etxebizitza
GUZTIRA		69	62	36	

4. Jarduteko eremu definitu bat

Joan den uztailearen 5ean, dokumentu hau aurkeztu zen: **“Eusko Jaurlaritzaren esparru dokumentua, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakunde artekoa eta sailen artekoa”**. Ekarpinak jasotzeko prest aurkeztu zen proposamen hori. Behin betiko dokumentua 2017ko azaroan aurkeztu da.

Dokumentuak errefuxiatuek Europako mugetan pairatzen duten krisi humanitarioei ematen zaion erantzunari buruzko estrategia osoa jasotzen du, eta hiru parte ditu: oinarriak, esparrua eta jarduera-plana.

Bost ardatz hauen inguruan antolatzen da jarduera-plana:

·**Proposamen-ardatza.** Harrera-sistemak eraldatzeari eta hobetzeari zuzendutako proposamenak aurkeztean eta sustatzean oinarritzen da, Espainiako Gobernuari dagokionean batez ere.

·**Ardatz berritzailea.** Harrera- eta gizarteratze-arloan Euskadiko erakundeen eta gizarte entitateen eskumenen barruan dauden eremuetan eta gaietan dagoen guztia eraberritzeko eta hobetzeko xedea dauka.

- Ekintza humanitarioaren ardatza.** Une bakoitzean eta nazioarteko babes bilatzen duten pertsonak pairatzen dituzten bidegabekerien aurrean inplikazio humanitarioa behar duten egoerekin konpromiso proaktiboa edukitzean datza.
- Prebentziozko ekintzaren ardatza.** Bake-, justizia- eta berdintasun-premia handiena duten herrialdeetan jardungo duten proiektuak babestea eta garatzea du xede, prebentziozko erantzun eraldatzaileen bidez eta zuzeneko laguntza eta lankidetzarako politiken bidez.
- Jarrera-ardatza.** Bi eremutan banatzen da: nazioartekoan, Eusko Jaurlaritza Europako eta nazioarteko instantzietan entzunarazteko, eta barne-mailakoan, bizikidetzakultura irekia sustatzeko euskal gizartearen.

5. Egindako jarduera nagusiak, jarduera-ardatzen arabera bilduta

Ondoren orain arte 2017an zehar egin diren jarduera nagusiak zerrendatzen dira, jarduera ardatzen arabera bilduta.

·Proposamen-ardatza

- Eusko Jaurlaritzako delegazio bat Erromara joan zen urtarrilaren 12an ea 13an, Lehendakaria buru zela, eta San Egidio komunitateak Italian bultzatuta, korridore humanitarioen esperientziaren berri izateko.
- Euskadin korridore humanitario bat esperientzia pilotu gisa irekitzeko proposatu zitzaion Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeriori (urtarrilak 25).
- Euskadin Errefortzuko Sistema Osagarria esperientzia pilotu gisa ezartzeko proposatu zitzaion Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari (urtarrilak 25).
- Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioarekin lankidetzak-hitzarmena sinatu zen, Auzolana proposamena garatzeko (2018ko urtarrilaren 15ean).

·Ardatz berritzailea

- 2017ko amaierara arte, Euskadin 450 plaza ireki sortu dira, zeinetan 600 pertsona baino gehiago artatu eta lehenengo harrera eman zaien.
- Sailen arteko koordinazioa indartu da, eta Hezkuntza, Osasuna, Etxebizitza eta Enplegu eta Politika Sozialeri dagokienez zein diren jarduera egokiak antzeman da.
- Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan aritu zen, nazioarteko babesaren eskatzaileen matrikulazio-gastuei aurre egiteko, gure herrian dauden bitartean ikasten jarraitu nahi badute.
- EAEko 60 udalen jarrera positiboa daukagu, beren lurraldetan errefuxiatuak hartzen laguntzeko prest agertu baitira, Eusko Jaurlaritzak EUDELekin lankidetzan egindako deialdiari erantzunez.

·Ekintza humanitarioaren ardatza

- 2017an zehar, Mediterraneo-aldean esku hartzeko lau premia-deialdiari erantzun die Eusko Jaurlaritzak, Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bidez:
 - 150.000 euroko laguntza eman zitzaion ACNUR-ri, erakunde horrek bere "Errefuxiatuei eta migratzaileei erantzuna emateko Europarako 2017ko Erregio Plana" babesteko egindako deialdiari erantzuteko (otsailak 14).
 - 150.000 euroko laguntza eman zitzaion Salvamento Marítimo Humanitario-ri, erakunde horrek "Aita Mari Zubiria #Maydayterreano 2017" proiektua gauzatzeko egindako deialdiari erantzuteko. Zehazkiago, Greziako kostaldean egiten ari den lana babesteko baliatzen ari da laguntza hori, Libiako kostaldetik nazioarteko babesaren bila ateratzen diren errefuxiatuak itsasoan salbatzea da haien lan nagusia (uztailak 11).
 - 200.000 euroko laguntza eman zitzaion Bulgariako UNICEFi, Bulgarian dabilzan edo nazioarteko laguntza eskatzen duten umeen muturreko baldintzei erantzuna emateko (urriak 17).

-200.000 euroko laguntza eman zitzaion Save the Children-i, Lesbosen eta Atenasen baka-
rrik dabilzan adingabekoeekin egiten duen lana babesteko (abenduak 5).

·Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak jarraitu du esku hartze-proiektuak eta estrategiak
babesten, beren Akzio Humanitarioko deialdi ohikoen esparruaren barruan.

·Jarrera-ardatza

Eusko Jaurlaritzak lan egin du 2017an bere ahotsa eta proposamenak entzunarazteko, bai euskal gizar-
tearen aurrean, bai eta nazioarteko zenbait erakundeen aurrean ere. Helburu horrekin, egindako ekintza
hauek nabarmentzen ditugu:

·René Cassin 2016 saria Salvamento Marítimo Humanitario eta Zaporeak taldeei eman zitzaien,
2016ko abenduaren 12an.

·Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari errefuxiatuei Euskadin ematen zaien harrera eta
integrazioa hobetzeko egindako bi lan-proposamen bateratuen proposamenak aurkeztu ziren
jendaurrean (otsailak 2).

·Europar izaten ari den krisi humanitarioa dela-eta, Lehendakariak deklarazio instituzionala egin
zuen: “Konpromisoa eskatzen eta eskaintzen dugu” (apirilak 3). Aurrekaririk ez duen adoste-e-
kintza bat izan zen, non Lehendakariarekin batera talde politiko guztiak agertu baitziren, bai eta
Euskadiko erakunde nagusietako eta zenbait erakunde sozialetako ordezkariak ere.

·Auzolan Proposamena aurkeztu zen, ekainaren 20an:

·Jendaurrean aurkeztu zen Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bi-
deratzeko errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa,
erakundeen artekoa eta sailen artekoa (uztailaren 5).

·Zenbait jardunaldi, foru eta sentsibilizazio-ekintzetan parte hartu zen; besteak beste, hauek na-
barmentzen ditugu:

-Erakusketa: “#Errefuxiatuen eskubideak: 11 bizitza, 11 maletatan”

-Gernika Gogoratuz-en XXVII. Nazioarteko jardunaldiak, “Mugak, itzalak eta edertasuna”
(apirilaren 27an eta 28an).

-Errefuxiatuen aldeko “Ongi Etorri Gernika” ekimena, apirilaren 29an.

-Nazioarteko hitzaldia: “La integración de los refugiados en España”· Iheslarietako Na-
zio Batuen Goi Komisarioak eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak antolatua.
(ACNUR) Ekainaren 14an, Madrilen.

- Bilbao-Refugio” errefuxiatuen aldeko elkartasun-lasterketa (ekainak 25).

-Save the Children-en jardunaldia: “La voz de la infancia migrante. Diálogo – retos en la de-
fensa de sus derechos y acogida en Europa” (irailak 21).

·Zinexit Topaketak 2017, “Mediterránea” pelikularen emanaldia eta haren osteko eztabaida. Leila
Nachawati giza eskubideen defendatzaileak parte hartu zuen (urriak 10).

·Bizikidetzarako Zinema Erakustaldiaren 8. Edizioa, Zinexit 2017, errefuxiatuen eta migratzaileei
egoerari buruz, azaroaren 6tik 9a arte.

·Errefuxiatuekiko euskal elkartasuna diruz laguntzea eta zabalkundea egitea (“ZUK”).

·Mikel Anton Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariaren berbaldia, 8. saioan, Migra-
zioari buruz, Itsas Erregio Periferikoen Biltzarreko organo politikoaren bileran (CPMR), Maltan,
2017 martxoaren 10ean. Eusko Jaurlaritza errefuxiatuak hartzeari dagokionez egiten ari den lan-
naren berri eman zuen Mikel Antonek bere berbaldian.

·*Task Force on Migration Management*-ekin lankidetzan aritu zen, Itsas Erregio Periferikoen Bil-
tzarraren barruan, immigrazioari eta errefuxiatuak hartzeari dagokionez helarazi dizkiguten itaun-
ketei erantzute aldera.

6. Zenbait ondorio

·**Lehena.** Euskadin, adostasun handia dago erakundeetako eta gizarteko eragileen artean errefuxiatuen egoerari ematen zaion erantzuna hobetzeko beharraz. Bereziki inportantea da adostasun hori lantzea, sakontzea eta operatibizatzea.

·**Bigarrena.** Euskadin, erakunde eta eragile sozial desberdinen arteko benetako lankidetzaren esparru bat sortzen ari gara, krisi humanitarioari ematen zaion erantzuna hobetzeko prozesuak banatzea helburu duena. Lankidetzaren praktikoko esparru hori zaindu behar da, eta lan-helburu eta plan zehatzak ezarriz sustatu.

·**Hirugarrena.** Lankidetzaren bide bat zabaldu da Espainiako gobernuarekin, 2017ko harrera-sistema ohikoa hobetzeko (AUZOLANA proposamena); baliteke 2018an beste bide berri batzuk ere irekitzea, hala nola bisatu humanitarioak.

·**Laugarrena.** Garrantzitsua da gai honetan ikuspegi integral batetik lan egiten jarraitzea, bost ardatzen inguruko ekintzak garatuz modu osagarrian eta gaiarekin zerikusia duten gainerako erakundeak eta entitateak aintzat hartuz. Kontu konplexu baten aurrean gaude, erantzun konplexua, solidarioa eta justua eskatzen duena.

III.

2018rako helburuak

Eusko Jaurlaritzaren
2018rako helburuak,
errefuxiatuei buruzko politika
publikoen kudeaketan

1. Proposamen-ardatza

1.1. Auzolana proposamena garatzen jarraitzea

- Espainiako Gobernuarekiko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.
- Auzolana proposamenaren garapena osatzea, hitzarmenean ezarritakoan oinarrituta.
- Auzolana proposamenaren kudeaketaren ebaluazio- eta sistematizazio-prozesua garatzea aldi berean.

1.2. Bisa humanitarioen bidea aktibatzen jarraitzea

- 2018ko lehenengo sei hilabetetan proposamen berri bat aurkeztea.

1.3. Praktika onak identifikatuta, beste proposamen batzuk aztertzea eta bultzatzea

- ACNUR-Espainia izenekoak babesletza komunitarioko esperientzia pilotu bat bultzatzeko izandako ekimenean aktiboki parte hartzea.

2. Ardatz berritzailea

2.1. Aurreratzea hobetzea

- Begiratzea ea posiblea den lehenengo harrera emateko aterpe bat ezartzea Euskadin.
- Ziurtatzea Euskadin protokolo hau ezartzen dela: *Nazioarteko babes eskatzen eta jasotzen dutenei zuzendutako jarduerak koordinatzeko, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren, autonomia-erkidegoen eta tokiko entitateen arteko protokoloa.*

2.2. Harrera-egokitzapen fasea hobetzea

- Kuantitatiboki, plazak sortzea Espainiako Gobernuak antolatutako bideen menpe egon arren, helburua, 2018an, 500 plaza sendotzen saiatzea da eta, krisiaren hasieratik, 2.000 pertsonen kopuru metatura iristea.
- Harrera eta egokitzapen-batzordeak sortzen bultzatzea eta laguntzea, gutxienez 9 harrera-udalerritan.
- Tokiko boluntarioen erakundeen parte hartzea bultzatzea eta laguntzea, gutxienez 9 harrera-udalerritan.

2.3. Gizarteratze-autonomia fasea hobetzea

- Koordinazio-mahaiak sortzea bultzatzea eta laguntzea, hiru lurralde historikoak integartzeko.
- Nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen integrazio-kontuetan erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea, jardunbide onak antzemanaz eta errepikatuz, eta osasun, hezkuntza-, etxebizitza- eta gizarteratze-oinarrizko zerbitzuen koherentzia eta osagarritasuna bermatuz.
- Euskal Herriko Unibertsitatearekiko lankidetzaren akordio bat identifikatzea eta bultzatzea, Euskadin dauden nazioarteko babesaren eskatzaileek unibertsitate-ikasketak egitea errazteko.

2.4. Prozesu ostekoa hobetzea

- Egoera ahulean dauden pertsonen buruzko ikerketa bat egitea, Caritasekin, prozesua amaitutakoan, eta egoera horri erantzuna emateko neurriak antzematea.

3. Ekintza humanitarioaren ardatza

3.1. Premia humanitarioaren deiei erantzutea

- Nazio Batuen edo nazioarteko zein Europako beste erakunde batzuen deiei laguntzea eta erantzutea, Mediterraneoko krisiarekin lotutako premia humanitarioko egoerak arintzen laguntzeko.

3.2. Esku-hartze humanitariorako ekimen-programa propioa zehaztea

·Mediterraneoan dauden errefuxiatuen nozitzen duten krisian 2018rako esku-hartze humanitarioko programa bat definitzea eta garatzea, besteak beste, helburu hauek lehenetsiz: oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak hornitzea, hezkuntza-egiturak berreraikitzea, biolentziaren ondorioak leuntzea eta biktimak babestea.

3.3. Arreta berezia ematea adingabeen inguruko erantzun espezifikoei

·Erantzun espezifikoak babestea eta laguntzea, krisia dagoen lekuan bertan, bai eta arduradunik gabeko adingabeen harreran eta familiarekin berriz batzeari dagokionez. Zehazki, begiratuko da ea aukera dagoen Babesletza Komunitarioko esperientziak aplikatzeko adingabeak hartzeko eta gizarteratzeko.

4. Prebentziozko ekintzaren ardatza

4.1. Gatazken konponketa baketsua

·Hitzarmenak identifikatzea eta laguntzea edo ezartzea, 2018an, gatazkek modu baketsuaz konpontzeko tokiko gaitasunak indartzen laguntzera zuzendutako proiektuak bultzatzeko.

4.2. Eskubide sozialak berreraikitzea

·Hitzarmenak identifikatzea eta laguntzea edo ezartzea, 2018an, eskubide sozialak berreraikitzera zuzendutako zenbait proiektu bultzatzeko, besteak beste, osasunaren, hezkuntzaren, genero-berdintasunaren, erregistroaren, justiziaren, askatasunen eta parte-hartzearen arloan.

5. Jarrera-ardatza

5.1. Barne-mailako eragina

·2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren 7. eta 8. ekimenak abian jartzea, “dibertsitatearen kudeaketa positiboa” egitera zuzenduak, eta “elkartasuna sustatzera”, eta haien batera, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen kultura bultzatzera zuzendutako guztiak (9. ekimena: “Hezkuntza”; 10. ekimena: “Zabalkundea”; eta 11. ekimena: “Parte-hartzea”).

5.2. Kanpo-mailako ekintza-eragina

·Eusko Jaurlaritza ACNUR-rekin (UNHCR) lerrokatzea eta hark egiten dituen deialdi guztiak babestea, bai Europar Batasunak eta estatuetakoa gobernuek hartutako konpromisoak betetzeari dagokionez, bai Europako asilo-eskubidea errespetatzeko bermeen esparrua aldarrikatzeari dagokionez.

·Europako erakundearen eta Nazio Batuen aurrean Eusko Jaurlaritzaren jarduera-plana eta haren esparru-dokumentua aurkeztea, modu partekatuan orientatzeko Europako mugetan errefuxiatuta dauden pertsonen pairatzen duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzuna (soziala, politikoa, erakundearen artekoa eta sailen artekoa).

6. Kudeaketako zeharkako ardatza

6.1. Instituzioen eta gizarte-erakundearen arteko koordinazio-mahaia

·Erakundearen eta gizarte-eragileen artean sortutako foruari eustea, errefuxiatuei dagokienez egiten diren politika publikoen kudeaketa, koordinazioa eta dinamizazioa egiteko, bai eta haren lan-eta ebaluazio-metodologia ere.

·Beste erakunde batzuekiko koordinazio estu eustea (esate baterako, Arartekoarekin eta Legebiltzarraren barruko taldearekin).

·Urtean zehar apirilaren 3ko Adierazpenean parte hartu zuten erakunde eta entitate guztien arteko topaketa baterako deialdia egitea.